

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### ARROBITXULOKO PARKEAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Arrobitxuloko parkea joan den martxoan inauguratu zen. Intxaurren-Herrera bidegorriaren ondoan den parke horrek haur jolasen toki estali bat, rokodromoa, mahaiak, pertsona helduek ariketak egiteko tokiak eta bizikletetan ibiltzeko zirkuitu bat ere badu, aldapa batzuekin eta.

Parkeak harrera bikaina izan du, inguruko auzoetako bizilagunek eskatutako gauza bat zen eta. Hala ere, parkea ikusten izan ginen batean, ikusi genuen eskonbro batzuk daudela botata hango toki batzuetan (ikus eranskinak). Eta komun publikorik ere ez dago parkean.

Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hilaren 16an izan zuen bileran zera erantzun ziguten:

- Komun publikoak izatea ez zegoela proiektuan, eta hurrengo urteko aurrekontuetan jarriko dutela kontu-sail bat komunak egiteko.
- Proiektuan, jolasleku batzuk izatea jartzen zuela (ez lorategiak), eta hurrengo urtean jarriko dituztela toki batzuk lorategi.

Komunak: berri ona da komun publiko batzuk jartzeko asmoa izatea. Hala ere, guk uste dugu denbora dezente beharko dela komunak egiteko. Behin-behingo konponbideren bat, behintzat, izan behar litzateke.

Jolaslekuak: berri ona da lorategi gune batzuk egiteko asmoa izatea. Baina, komunekin bezala, denbora dezente joango da horiek izaterako ere. Jolasguneak, bestetik, jolaserako modukoak izan behar lirateke, hau da, toki zelai samarrak eta, batez ere, adreilu, teila, beira, adar eta antzeko beste eskonbrorik gabekoak.

Horrenbestez, hauxe da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio komun publiko batzuk jartzeko Arrobitxuloko parkean behin-behingo, jarri eta kentzeko moduko komun batzuk alokatuta edota ondo iruditzen zaion beste moduren batera, harik eta konponbide behin betiko bat izan arte.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio egin behar diren gestioak egiteko Arrobitxuloko parkeko jolasleku guztiak jolaserako moduan eta ezeren eskonbrorik gabe izateko, obrak egin zituen enpresari hala eginarazita edo udal zerbitzuen bidez eginda.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia



## ERANSKINAK

Diario Vascok ateratako dossier bateko irudiak:

<http://www.diariovasco.com/fotos/san-sebastian/201603/23/parque-arrobitxulo-abre-puertas-3013165875220-mm.html#>

